

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBOKO AIREPORTUA SUSTATZEKO SOZIETATEA, SA-REN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2012.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bilboko Aireportua Sustatzeko Sozietatea, Saren 2012ko ekitaldiari dagokion kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu eta sozietatearen kudeaketa hobetzeko gomendioak egiten.

Legea betetzeari dagokionez, HKEEk uste du Sozietateak bete duela 2012ko ekitaldian zehar ekonomia-finantza jarduera arautzen duen legezko arautegia.

Sozietatearen urteko kontuei dagokienez, HKEEren iritzira alderdi esanguratsu guztietan 2012ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute, bi salbuespen egin zaizkiola, garrantzitsuena onartutako bazkideen ekarpen batzuen erregistroa izanik, onartutakoak eta ekitaldi itxieran kobratzeko zeudenak, 25 mila euroren zenbatekoan.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria eta kontratazioari dagozkion ataletan.